



4.7 DIRULAGUNTZA LERROA: XXXIV MADALEN LITERATUR SARIAK – 2021. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1- Dirulaguntzaren xedea.

Lerro honen xedea da Errenterian bizi edo ikasten duten gazteen artean literaturarako zaletasuna piztea, eta euskaraz idazteko gogoia piztea..

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua

Dirulaguntza hauek 2021eko aurrekontuko partidaren kontura izango dira. Betiere partida horretako zenbateko osoa astzeko partida nahikoa esleitzen bada. Partida hori ondorengoa da:

1030.480.02.335.10

Dirulaguntzak: sariak: 2000

3.- Parte hartzeko oinarriak:

- a) Errenterian bizitzea edota Errenterian Lehen Hezkuntzan, DBHn, Batxilegoan edo Lanbide Eskolan aritzea.
- b) Euskaraz idatzitako lanak izatea.
- c) Aurkeztutako lanak jatorrizkoak eta argitara gabeak izatea.
- d) Partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du, ordenagailuz idatzia, DINA-4 neurrian eta lerroarte bikoitzean. Letra mota Arial edo antzeko izango da, eta tamaina: 12.
- e) Poesia sailean, 1. mailakoek 24 lerro idatzi beharko dituzte; 2. mailakoek 32; eta 3. mailakoek 40 lerro. Bertsolaritza lehiaketatik kanpo geratuko da.
- f) Prosa sailean, gehienez ere, 2 orrialde idatzi beharko dira.

4. Lanak aurkezteko era.

Lanak posta elektronikoko bidez aurkeztuko dira. Helbide honetara bidali behar dira lanak: euskara@errenteria.eus

Bidalitako mezuaren gaia, MADALEN SARIAK izango da. Eta egileak bi artxibo bidali beharko ditu (doc, docx, edo odt luzapena duten dokumentuak soilik onartuko dira).

- I. **ARTXIBOA: Idazlana.** Dokumentuaren hasieran XXXIV MADALEN SARIAK idatziko da, eta jarraian zenbagarren maila, prosa edo poesia den, eta izengoitia jarriko dira. Jarraian idazlanaren izenburua eta idazlana bera joango dira.
- II. **ARTXIBOA:Izengoitia.** Datu hauek jasoko dira:
 - Izengoitia



- Idazlanaren izenburua
- Maila
- Ikastetxearen izena
- Ikasmaila
- Egilearen datu pertsonalak: izen-abizenak, adina, helbidea, harremanetan jartzeko telefono zenbakia eta posta elektronikoa

OHARRA. Idazlearen argazkirik ez da bidali behar. Sarituen argazkiak gerora eskatuko ditugu.

5. Epaimahaia

Epaimahaia udalak izendatuko du eta bere erabakia apelaezina izango da. Epai-mahaikideen izen-abizenak gutun-azalak ireki baino lehen publiko egingo dira. Gutxienez bezperan Udal webgunean argitaratuko da.

6. Sariak

1. maila: Lehen Hezkuntza (2. eta 3. Zikloak)

- **Poesia, 1. saria:** 150 € material didaktikoa erosteko.
- **Poesia, 2. saria:** 100 € material didaktikoa erosteko.
- **Poesia, 3. saria:** 70 € material didaktikoa erosteko.
- **Prosa, 1. saria:** 150 € material didaktikoa erosteko.
- **Prosa, 2. saria:** 100 € material didaktikoa erosteko.
- **Prosa, 3. saria:** 70 € material didaktikoa erosteko.

2. maila: DBH 1-DBH2

- **Poesia, 1. saria:** 160 € dirutan.
- **Poesia, 2. saria:** 110 € dirutan.
- **Poesia, 3. saria:** 70 € dirutan.
- **Prosa, 1. saria:** 160 € dirutan.
- **Prosa, 2. saria:** 110 € dirutan.
- **Prosa, 3. saria:** 70 € dirutan.

3. maila: DBH 3-DBH 4 Batxilergoa Lanbide Heziketa

- **Poesia, 1. saria:** 230 € dirutan.
- **Poesia, 2. saria:** 160 € dirutan.



- **Poesia, 3. saria:** 110 € dirutan.
- **Prosa, 1. saria:** 230 € dirutan.
- **Prosa, 2. saria:** 160 € dirutan.
- **Prosa, 3. saria:** 110 € dirutan.

Horrezaz gain, accesit opariak ere eman ahal izango dira saririk lortu ez baina maila egokia dutela kontsideratzen den lanentzat.

Sariak eman gabe geratu ahal izango dira epaimahaiak kontsideratzen badu nahikoa maila ez dagoela.

Legeri jarraituz sariei dagozkien zergak aplikatu dakizkieke.

7.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena sinatu ondoren egingo da. Ebazpen horretan jasoko dira irabazleen izenak eta Udaleko webgunean argitaratuko dira.

Saria dutenei, diploma eta gutunazala emango zaie.

Gutunazalen barnekaldean, hauxe dute:

-> Saria dutenek

- 1. mailakoek, Xenpelar Kulturdendan erosteko balea
- 2. eta 3. mailakoek, dirua jasotzeko balea eta dirua kontu korrontean sartzeko dokumentua (Udal Hizkuntza Politika bulegora ekarri beharko dutena, edo posta elektronikoz bidali ahal izango dute euskara@errenteria.eus helbidera). Kontu korrontea irabazlearena edo bere ordezkari batena, gurasoak adibidez, izan daiteke.

8.- Aurkeztutako lanen jabetza

Deialdian parte hartzeak suposatuko du lan sarituen egileek onartzen dutela lan horiek Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe Creative Commons lizentzian (BY-NC-ND sigla ingelesez) ezarritako baldintzetan erabiltzea.

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Lizentzia horrek xedatzen du obra kopiatu, banatu eta publikoki erabil daitekeela, betiere jatorrizko egilea aipatzen bada eta ez bada merkataritzarako edo lan eratorritarako erabiltzen. Lan eratorria da dokumentu editatua, itzulia, hirugarrenen materialekin bateratua, formatu aldatua duena edo edozein aldaketa izan duena. Sarituak izan ez diren lanak ezabatu egingo dira.



9.- Lanak aurkezteko epea

2021eko martxoaren 26a. 24:00

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRETERIAKO UDALAK 2021 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

INFORMAZIOA: Udal Hizkuntza Politika departamentua. Tf. 943449613. emaila: euskara @errenteria.eus.